



DK202517 DEKRETUA

UR-MIA SOLAS ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ONARTZEA

Gaurko datarekin Auzo alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Ereñotzun, 2025eko urriaren 23an

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak hitzarmen bat du Ur-mia Solas Elkartearekin, non bigarrenak 1.050€ jasotzen dituen urtean zehar aktibitate desberdinak egiteko. Hauetatik 550€ kultura jardueretarako erabiltzen dira eta 500€ elkartearen Bola eta Toka atalaren jardueretarako.

2025eko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Ur-mia Solas Elkartearen aldeko dirulaguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Ur-Mia Solas Elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 1.050 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez, partida honen kargura: 01.481.01.334.00 Dirulaguntza zuzenak 2025 AD-315.

Hirugarrena.- Ordainketa, hitzarmenaren bostgarren klausulan jasota bezala egitea: diru-laguntzaren %60 (630€) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (420€) justifikazioa aurkeztean.

Auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko idazkariordearen delegatua naizen honek ziurtatu dut.

Auzo Alkatea

Udal Idazkariordearen delegatua